

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEZOKO UDALA

Lezoko A.O.U. 16 Altzate eremuko R2/9 partzelan eraikiko diren erregimen orokorreko 16 etxebizitza sozial eta horien eranskinak, jabetza-erregimenean eta zozketaren bidez esleitzeko prozeduran parte-hartzeko deialdia.

Lezoko Udal Batzarrak, 2023ko martxoaren 30ean, onartu egin zituen goian aipatu diren deialdia eta oinarri horiek.

Lezoko Udalak edukiko du prozedura kudeatzeko ardura.

Eskaerak aurkezteko epea: 30 egun natural deialdia eta oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen direnetik kontatuta.

Eskaerak non aurkeztu:

– Udaleko egoitza elektronikoaren bitartez, telematikoki (www.lezo.eus).

– Aurrez aurre, Lezoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan.

Eskaeraren eredia: etxebizitza eskatzaileen erregistroan izena emateko eskaera eredu ofizialean aurkeztuko da. Eredu hori eskura egongo da:

– Udal-egoitza elektronikoan (www.lezo.eus).

Lezo, 2023ko maiatzaren 4a.—Alkatea. (3284)

Prozeduraren oinarriak. Lezoko A.O.U. 16 Altzate eremuko R2/9 partzelan eraikiko diren sustapen pribatuko eta erregimen orokorreko babes ofizialeko 16 etxebizitza eta eranskinak (jabetza-erregimenean) zozketa bidez esleitzeko prozeduraren oinarriak.

I. SARRERA

Lezoko Udalak, Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitza eskatzaileen zerrenda bat osatuko du. Zerrenda horren helburua da Lezoko A.O.U. 16 Altzate eremuko R2/9 partzelan proiektatutako babes ofizialeko erregimen orokorreko 16 etxebizitza esleitzea. Partzelaren titularra Britac Proyectos SL sozietatea da (aurrerantzean, «Sustatzailea»).

Sustatzaileak babes ofizialeko etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioa eskatu dio Eusko Jaurlaritzan etxebizitza-arloko eskumena duen organoari.

Sustapen pribatua denez, Lezoko Udalak sustatzailearen esku jarriko du etxebizitzaren esleipendun suertatzen diren eskatzaileen zerrenda (esleipen-hartzaileak eta itxaron zerrenda).

Helburu horrekin, Lezoko Udalak sustapena bera eta haren ezaugarriak aditzera emango ditu Lezoko Udaleko egoitza elektronikoaren iragarki taulan.

AYUNTAMIENTO DE LEZO

Convocatoria para participar en el procedimiento de adjudicación, en régimen de propiedad mediante sorteo, de 16 viviendas sociales de régimen general, y sus anejos vinculados, en la parcela R2/9 del ámbito A.O.U. 16 Altzate, en el municipio de Lezo.

El Pleno del Ayuntamiento de Lezo, en sesión celebrada el 30 de marzo de 2023, aprobó la convocatoria y las bases arriba citadas.

El Ayuntamiento de Lezo será el encargado de la gestión del procedimiento.

El plazo de presentación de solicitudes será de 30 días naturales a partir de la publicación de la convocatoria y de las bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Lugar de presentación de solicitudes:

– Vía telemática a través de la sede electrónica municipal (www.lezo.eus).

– Vía presencial en las oficinas del Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Lezo.

Modelo de solicitud: la solicitud de inscripción en el Registro de Solicitantes de Vivienda se presentará en modelo oficial. Este modelo estará disponible en:

– En la sede electrónica municipal (www.lezo.eus).

Lezo, a 4 de mayo de 2023. El alcalde. (3284)

Bases del procedimiento. Bases del procedimiento para la adjudicación por sorteo de 16 viviendas de protección oficial de régimen general y anejos en régimen de propiedad en la parcela R2/9 del área A.O.U. 16 Altzate en Lezo.

I. INTRODUCCIÓN

El Ayuntamiento de Lezo elaborará una relación de solicitantes de Vivienda de Protección Oficial de Régimen General. Dicha relación tiene por objeto la adjudicación de 16 viviendas de protección oficial de régimen general proyectadas en la parcela R2/9 del ámbito A.O.U. 16 Altzate en Lezo. El titular de la parcela es la sociedad Britac Proyectos, S.L. (en adelante, «Promotor»).

El Promotor ha solicitado la calificación provisional de viviendas de protección oficial ante el órgano competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco.

Al tratarse de una promoción privada, el Ayuntamiento de Lezo pondrá a disposición del Promotor la relación de solicitantes (adjudicatarios y lista de espera) que resultaren adjudicatarios de vivienda.

A tal fin, el Ayuntamiento de Lezo hará pública la promoción y sus características en el tablón de anuncios de la sede electrónica del Ayuntamiento de Lezo.

II. ESKURATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

1. artikulua. Izena emateko eskaera.

Lezoko A.O.U. 16 Altzate eremuko R2/9 partzelan garatuko diren erregimen orokorreko babes ofizialeko 16 etxebizitzaren sustapenean etxebizitza bat lortzeko aukera izateko lehen urratsa zerrenda horretan izena ematea da.

2. artikulua. Eskatzaileak.

2.1. Sartzeko baldintza orokorrak.

Babes ofizialeko etxebizitza bat (BOE) eskuratzeko interesa duten pertsona naturalek edo bizikidetzak-unitateek eskatu ahal izango dute zozketan parte hartzeko, baldin eta babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua-aren arloko finantza-neurri- buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Adin-nagusitasuna.

Bizikidetzak unitateen kasuan, gutxienez kide bat adinez nagusia izatea eskatuko da inskripzioa ixten denean. Ez da bizikidetzak unitatez hartuko adiskidetasun edo komenientzia arrazoiengatik sortutakoa, eta etxebizitzaren titularkide izan beharko dute adinez nagusi diren bizikidetzak unitateko kide guztiek, zuzeneko lerroko ondorengoak izan ezik.

b) Etxebizitzarik ez izatea.

Aurreko bi urteetan beste etxebizitzarik ez izateko baldintza bete beharko da, bai jabetzan, osorik edo azalera-erakunde bidez, bai biziarteko gozamen-erakunde erreala- bidez, betiere etxebizitza-premia zehazten duen araudi autonomikoan ezarritako salbuespenekin, edo dagoeneko duten etxebizitzak gutxienezko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten, 3/2015 Legearen 60. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

c) Baldintza ekonomikoak.

39/2008 Dekretuaren 19.2 artikulua eta 2019ko abenduaren 26ko 210/2019 Errege Dekretuaren arabera (2020ko urtarrilaren 20ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua) (2011ko irailaren 14ko Agindua aldatzen duen azken xedapenetako seigarrena), kreditu-erakunde eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa etxebizitzaren eta lurzorua-aren arloan eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatze-ari buruzkoa, urteko diru-sarrera haztatuen betekizunak hauek dira:

Urteko diru-sarrera ponderatuen gutxienezko eta gehieneko mugak hauek izango dira: d) erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak erosteko: 12.000 €-tik 39.000 €-ra.

d) Egoitza.

Egoitza Lezoko udalerrian izateari buruz Lezoko Udalak eskatutako baldintza beteko dute; hau da, bizikidetzak-unitateko kideetako bat, gutxienez, Lezoko etenik gabe erroldatuta egon izana, gutxienez, aurreko 2 urteetan, Udalak oinarri hauek onartzen dituen eguna kontuan hartuta; edo gutxienez, 10 urtez egon izana Lezoko erroldatuta, etenik gabe edo etenaldiekin, nahiz eta oinarriak onartzeko datan udalerrian erroldatuta ez egon.

Etxebizitza guztiak Lezoko bizi diren esleipen-hartzaileei esleitzen ez bazaizkie, bigarren zerrenda bat egingo da Oarsoaldeko edozein udalerritan (Errenteria, Oiartzun edo Pasaia) erroldatuta dauden eskatzaileekin.

2.2. Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Nolanahi ere, eta Udalak edo/eta sustatzaileak kasu bakoitzean egokitzen dituzten ikerketek eta haiek aurkeztea beharrezkotzat jotzen diren beste edozein dokumentazio osagarri kalterik egin gabe, eskabideak onartzeko baldintzak betetzen direla honela egiaztatuko da:

II. CONDICIONES GENERALES DE ACCESO

Artículo 1. Solicitud de inscripción.

El primer paso para poder optar a una vivienda en la promoción de 16 viviendas de protección oficial de régimen general a desarrollar en la parcela R2/9 del área A.O.U. 16 Altzate en Lezo es la inscripción en dicha lista.

Artículo 2. Solicitantes.

2.1. Condiciones generales de acceso.

Podrán solicitar participar en el sorteo aquellas personas naturales o unidades convivenciales interesadas en adquirir una vivienda de Protección Oficial (VPO) en quienes concurren tanto los requisitos establecidos en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, así como aquellas que cumplan las condiciones establecidas en las presentes Bases, siendo las siguientes:

a) Mayoría de edad.

En el caso de unidades convivenciales se exigirá que al menos uno de sus miembros sea mayor de edad en el momento de cierre de la inscripción. No tendrá la consideración de unidad convivencial la creada por razones de amistad o conveniencia, debiendo ser cotitulares de la vivienda todos los integrantes de la unidad convivencial mayores de edad, con excepción de los descendientes en línea directa.

b) Carencia de vivienda.

Deberá cumplirse el requisito de no disponer de otra vivienda en los dos años anteriores, bien en propiedad, plena o superficial, bien por derecho real de disfrute vitalicio, y ello con las salvedades establecidas en la normativa autonómica que define la necesidad de vivienda o salvo cuando la vivienda de la que dispongan no alcance las condiciones mínimas de habitabilidad en aplicación de lo establecido en el artículo 60 de la Ley 3/2015.

c) Condiciones económicas.

De acuerdo con el artículo 19.2 del Decreto 39/2008 y el Real Decreto 210/2019 del 26 de diciembre de 2019, publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* del 20 de enero de 2020 (disposición final sexta que modifica la Orden del 14 de septiembre de 2011), de colaboración financiera entre las entidades de crédito y la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de vivienda y suelo y de modificación de disposiciones reglamentarias en materia de vivienda, los requisitos de ingresos anuales ponderados son:

Los límites mínimos y máximos de ingresos anuales ponderados serán los siguientes: d) para compra de viviendas de protección oficial de régimen general: desde 12.000 € a 39.000 €.

d) Residencia.

Cumplir con los requisitos de residencia en el municipio de Lezo requeridos por el Ayuntamiento, consistentes en que, alguno de los componentes de la unidad convivencial haya estado empadronado ininterrumpidamente como mínimo durante los 2 años anteriores al día de aprobación municipal de las presentes Bases; o durante un mínimo de 10 años, con o sin interrupciones, aunque en la referida fecha no estuviera empadronado.

Para el caso en el que no se adjudiquen todas las viviendas a los adjudicatarios residentes en Lezo, se prevé una segunda lista con solicitantes que estén empadronados dentro de cualquier municipio perteneciente a Oarsoaldea (Errenteria, Oiartzun o Pasaia).

2.2. Acreditación del cumplimiento de las condiciones.

Independientemente, y sin perjuicio de las investigaciones que el Ayuntamiento y/o el promotor consideren pertinente llevar a cabo en cada caso, y de cualquier otra documentación complementaria de la que se entienda necesaria su aportación, el cumplimiento de las condiciones para la admisión de solicitudes, se acreditará de la siguiente manera:

a) Etxebizitzarik ez izatea.

Etxebizitzarik ez izatearen pareko inguruabarretako bat alegatuz gero, hori frogatzen duten agiriak aurkeztuko dira. Bizigarritasun baldintza eskasetan edo antolamenduz kanpoko etxebizitzetan dagoen etxebizitzaren jabetza alegatuz gero, Udalaren zerbitzu teknikoaren txostenen bidez egiaztatuko da.

b) Diru-sarrerak.

2021eko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren edo aitorpenen fotokopia bidez frogatuko dira. Aitorpenik egin ez badu edo aitorpenik egitera beharturik ez badago, Foru Ogasunaren ziurtagiria, adinez nagusi diren bizikidetzaren unitateko kide guztiei buruzko aitorpen hori egin ez dela dioena.

Kasu horretan, gainera, dokumentazio hau aurkeztuko da (erreferentzia-urtea 2021a izanik):

– Lan bizitza buruzko txostena.

– Besteren konturako langileak: kasuan kasuko ekitaldiko nominak edo enpresa ziurtagiriak, indarra duen lan araudiaren eskakizunei egokituak.

– Erretiratuak edo pentsiodunak oro har, lanerako ezintasun edo baliaezintasun egoeran dauden langileak barne: hartutako pentsio edo prestazio ekonomikoaren ziurtagiria.

– Norberaren konturako langileak: Gizarte Segurantzako urteko kotizazioaren ziurtagiria, kuotak kalkulatzeko urteko oinarria eta diru-sarreraren aitorpen pertsonala jasotzen dituenak.

– Langabezi egoera, langabetuak: INEMen ziurtagiria, lan eskatzaile gisa inskribatuta dagoela eta jasotako prestazioak egiaztatzen dituenak, edo, hala badagokio, prestaziorik jasotzen ez duela egiaztatzen duena.

– Gizarte laguntzen hartzaileak: jasotako prestazio ekonomikoaren ziurtagiria.

c) Egoitza.

Oarsoaldeko udalek emandako erroldatze-ziurtagiria aurkeztuz egiaztatuko da. Lezon erroldatutakoek ez dute aurkeztu beharko.

3. artikulua. Zozketaren bidez izendatu daitezkeen etxebizitzak eta haiei lotutako elementuak. Kupoak.

Hona hemen zozketaren xede diren elementuak: Lezoko A.O.U. 16 Altzate eremuko R2/9 partzelan aurreikusitako erregimen orokorreko Babes Ofizialeko 16 etxebizitza eta horiei lotutako elementuak (garajeak eta trastelekuak). Beraz, zozketa bakarria egingo da guztiak esleitzeko. Hona hemen xehetasunak:

a) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat gordetako etxebizitza 1 (etxebizitza egokitua).

b) Hiru logelako 15 etxebizitza.

Esleitu beharreko hamasei etxebizitzetatik, honako kupo hauek gordeko dira, ordena zehatz eta lehentasunaren arabera:

a.— Dibertsitate funtzionala duten pertsonak: mugikortasun murriztu iraunkorra duten pertsona ezgaituak hartuko dira parte erreserba honetan.

Etxebizitza 1 gordeko da kupo honetarako.

Bizikidetzaren unitateko kideren bat ezgaitua bada, bizikidetzaren unitate hori erreserbatuko kupo horretan sartuko da.

b.— Familia guraso bakarreko ama edo aita. 18 urtez azpiko adingabe baten ama edo aita.

2 etxebizitza erreserbatuko dira kupo horretarako.

a) Carencia de Vivienda.

Si se alegara alguna de las circunstancias equiparables a la carencia de vivienda, se presentará documentación acreditativa de tal circunstancia. En caso de alegarse la propiedad de vivienda en deficientes condiciones de habitabilidad o viviendas fuera de ordenación, se acreditará tal condición mediante informes de los servicios técnicos municipales.

b) Ingresos.

Se acreditarán mediante aportación de fotocopias de la declaración o declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del año 2021. En el caso de no haber hecho o de no estar obligados a hacer declaración, certificación de la Hacienda Foral de no haberse efectuado dicha declaración, en ambos casos, referida a todos los miembros de la unidad de convivencia mayores de edad.

En este supuesto se presentará, además, la siguiente documentación (siempre siendo el año de referencia el 2021):

– Informe de vida laboral.

– Trabajadores por cuenta ajena: Nóminas o certificados de empresa del ejercicio correspondiente, ajustados a los requisitos de la reglamentación laboral vigente.

– Jubilados o pensionistas en general, incluidos trabajadores en situación de incapacidad laboral o invalidez: Certificación de la pensión o prestación económica percibida.

– Trabajadores por cuenta propia: Certificación de la cotización anual a la Seguridad Social en la que conste la base anual sobre la que se calculen las cuotas y declaración personal de ingresos.

– Situación de desempleo, parados: Certificación del INEM, de estar inscrito como demandante de empleo y acreditativa de las prestaciones recibidas, o en su caso, de no recibir prestación alguna.

– Perceptores de Ayudas Sociales: Certificación de la prestación económica percibida.

c) Residencia.

Se acreditará mediante la presentación de certificado de empadronamiento expedido por los ayuntamientos de Oarsoalde. Los empadronados en Lezo no deberán presentarlo.

Artículo 3. Viviendas y elementos vinculados a las mismas disponibles para su asignación en el presente sorteo. Cupos.

Los elementos objeto de sorteo son 16 Viviendas de Protección Oficial de Régimen General y sus elementos vinculados (garajes y trasteros), previstas en la parcela R2/9 del área A.O.U. 16 Altzate en Lezo. Por tanto, se realizará un único sorteo para la adjudicación de todos ellos. El detalle es el siguiente:

a) 1 vivienda reservada para personas con movilidad reducida (vivienda adaptada).

b) 15 viviendas de tres dormitorios.

De las dieciséis viviendas a adjudicar, se reservarán los siguientes cupos, en el orden detallado y de prioridad a continuación:

a.— Personas con diversidad funcional: concursarán por esta reserva las personas que reúnan la condición de personas discapacitadas con movilidad reducida permanente.

Se reservará 1 vivienda para este cupo.

Si algún miembro de la unidad convivencial reúne la condición de persona discapacitada, esta unidad convivencial se integrará en este cupo de reserva.

b.— Padres o madres monoparentales. Madre o padre de un menor de 18 años.

Se reservarán 2 viviendas para este cupo.

c.— Gazteak. Inskribatzeko azken egunean 18 eta 35 urte bitarteko adina dutenak.

2 etxebizitza erreserbatuko dira kupo horretarako.

d.— Kupo orokorra. 3 logelako etxebizitzak; 11 etxebizitza erreserbatuko dira.

Kupo horiek honako lehentasun-ordena hau izango dute:

1. Dibertsitate funtzionala duten pertsonak.
2. Familia guraso bakarreko ama edo aita.
3. Gazteak.
4. Kupo orokorra.

Eskatzaileak izena emateko eskabidean ezarritako kupoe-tan sartuko dira, horretarako baldintzak betetzen badituzte.

Kupo bakoitzeko onartuen zerrenda bat ezarriko da.

Zozketan ezarritako kupoen hurrenkeran, onuraduna suertatzen denak ez du hurrengo zozketetan parte hartuko.

Parte hartzen duen lehen kupotik onuradun suertatzen ez denak baldintzak betetzen dituen hurrengo kupo berezietan jarraituko du, eta, bestela, automatikoki kupo orokorrean sartuko da eta erreserbatu gabeko etxebizitzetan parte hartuko du gainerako parte-hartzaileekin.

Beste bi kupo osagarri egingo dira, salbuespen gisa, Lezon bizi diren esleipen-hartzaileei etxebizitza guztiak esleitzen ez zaizkienean; bata, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, eta bestea, orokorra.

4. artikulua. Izena emateko epea.

Eskatzaileen erregistroan izena emateko 30 egun naturaleko epea egongo da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik kontatzen hasita. Hala, eskaerak Lezoko Udalaren herritarrentzako harrera zerbitzuan edo egoitza elektronikoa bitartez (www.lezo.eus) aurkeztu beharko dira.

5. artikulua. Eskaeraren eredu.

Etxebizitza eskatzaileen erregistroan izena emateko eskaera, eskaera eredu ofizialean aurkeztuko da. Eredu hori eskura egongo da udal-egoitza elektronikoa (www.lezo.eus) eta herritarrentzako udal harrera zerbitzuan.

Bizikidetzaren unitate bat inskribatzeko eskaera haren titular guztiak sinatu beharko dute. Hala eta guztiz ere, bizikidetzaren unitateko titularrek beraietako bati eman diezaiokete ordezkari-tza, eskaera denen izenean egin dezan. Pertsona edo bizikidetzaren unitate bakoitzeko eskaera bakarra onartuko da.

6. artikulua. Baldintza legalak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

Eskaerarekin batera, nahitaez, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da; horren bitartez, etxebizitza eskatzen duten pertsonak edo bizikidetzaren unitateko titular guztiak honako hiru adieraziko dute:

- a) Betetzen dituztela erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak lortzeko indarreko araudiak xedatutako baldintza guztiak.
- b) Badutela hori egiaztatzen duen dokumentazioa.
- c) Aurreko artikuluan aipatutako ordezkaria izendatzen dutela, halakorik balego.
- d) Bizikidetzaren unitate erreala bat datorrela eskaeran adierazitako informazioarekin, eta zehatza dela.

Adierazpena zehatza ez bada edo faltsua bada, ez da eskaera onartuko.

Frogagiriak, ordea, esleipendun suertatuz gero aurkeztu beharko dira, hain zuzen, kontratua ikus-onetsi baino lehen, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c.— Jóvenes. Quienes tengan entre 18 y 35 años el último día de inscripción.

Se reservarán 2 viviendas para este cupo.

d.— Cupo general. Viviendas de 3 dormitorios; se reservarán 11 viviendas.

Estos cupos tendrán el siguiente orden de prioridad:

1. Personas con diversidad funcional.
2. Padres o madres monoparentales.
3. Jóvenes.
4. Cupo general.

Los/las solicitantes se integrarán en cada uno de los cupos que establezcan en la solicitud de inscripción, siempre y cuando cumplan los requisitos para ello.

Por cada cupo se establecerá una lista de admitidos.

En el orden de cupos establecido del sorteo, quien resultare beneficiario, dejará de participar en los siguientes sorteos.

Quien no resultare beneficiario por el primer cupo en el que participa, seguirá teniendo la oportunidad en los siguientes cupos especiales que cumpla con los requisitos, y si no, pasará, automáticamente a formar parte del cupo general y concursar con el resto de participantes por las viviendas no reservadas.

Se realizaran otros dos cupos adicionales, con carácter excepcional, para el caso de en el que no se adjudiquen todas las viviendas a los adjudicatarios residentes en Lezo; uno para personas con diversidad funcional y otro general.

Artículo 4. Plazo de inscripción.

El plazo de inscripción en el registro de solicitantes será de 30 días naturales a partir de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Así, las solicitudes deberán presentarse en el Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Lezo o a través de la sede electrónica www.lezo.eus.

Artículo 5. Modelo de solicitud.

La solicitud de inscripción en el Registro de Solicitantes de Vivienda se presentará en modelo oficial. Dicho modelo estará disponible en la sede electrónica municipal (www.lezo.eus) y en el Servicio de Atención a la Ciudadanía. <http://www.lezo.eus>.

La solicitud de inscripción de una unidad convivencial deberá ser suscrita por todos los titulares de la misma. No obstante, los titulares de la unidad de convivencia podrán otorgar su representación a uno de ellos para que lo haga en nombre de todos. Sólo se admitirá una solicitud por persona o unidad convivencial.

Artículo 6. Declaración responsable sobre el cumplimiento de los requisitos legales.

La solicitud deberá ir acompañada necesariamente de una declaración responsable en la que la persona o personas solicitantes de vivienda o titulares de la unidad convivencial manifiesten:

- a) Que cumplen todos los requisitos establecidos por la normativa vigente para el acceso a las viviendas de protección oficial de régimen general.
- b) Que disponen de la documentación que así lo acredita.
- c) Que designan, en su caso, al representante mencionado en el artículo anterior.
- d) Que la unidad de convivencia real coincide con la información indicada en la solicitud y es exacta.

La inexactitud o falsedad en la declaración dará lugar a la inadmisión de la solicitud.

La documentación justificativa deberá presentarse, en caso de resultar adjudicataria, con carácter previo al visado del contrato, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 37 de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda.

Udal Erregistroan zozketan parte hartzeko eskaerak ez du esan nahi eskatzaileari etxebizitza bat esleituiko zaionik, baizik eta zozketan parte hartuko duela. Zozketa eta esleipen prozeduraren barruan, eskatzaileek etxebizitza esleitzeko bete beharreko baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzeko eskatzen zaizkien dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzte. Dena den, adierazitako dokumentazio guztia salerosketa-kontratu pribatua sinatu baino lehen aurkeztu beharko da.

7. artikulua. Behin-behineko zerrendak.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, behin-behineko zerrenda argitaratuko da alkate ebazpenez, zozketan parte hartzea eskatu dutenek egjazta dezaten beren eskaera formalki zerrendan sartuta dagoela. Zerrendak 5 egun naturalez egongo dira ikusgai Lezoko Udaleko iragarki-taulatan eta Udalaren webgunean (www.lezo.eus).

Bost eguneko epe horretan, baztertuek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, uste badute bazterketa hori ez dela bidezkoa. Erreklamazio hori idatziz aurkeztu beharko da Lezoko Udalaren herritarrentzako harrera zerbitzuan edo egoitza elektronikoaren bitartez (www.lezo.eus) bakoitzak alegatzen dituen arrazoiak azaltzeko egoki iruditzen zaizkien frogagiri eta guzti.

8. artikulua. Behin betiko zerrendak.

Egindako erreklamazioak ebatzi ondoren, Udalaren iragarki tauletan eta webgunean argitaratuko dira zozketan parte hartzeko behin betiko zerrendak.

Behin betiko zerrendek datu hauek izango dituzte:

- Eskaeraren buru den pertsonaren nortasun agiriaren zenbakia (NANA).
- Zein kupotan parte hartzen duen.
- Zozketan parte hartzeko izango duen zenbakia.

Zozketan parte hartzeko eskaera egin dutenak zerrendan azalduko dira, baina horrekin ez da ulertuko inolaz ere baldintzak eta eskakizunak betetzen dituztela. Hain zuzen ere, etxebizitzak behin betiko esleitu baino lehen egiaztatuko da legezko baldintzak betetzen dituztela.

9. artikulua. Datuak babestea.

Datuen babeserako arloan indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraiki, Lezoko Udala izango da datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, babes ofizialeko etxebizitza eskatzaileen udal erregistroari dagokionez.

Datu pertsonal horiek etxebizitza babestuak kudeatzeko erabiliko dira, Tokiko Araubidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legeak eta Euskadiko Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak xedatutakoaren arabera.

Aukera egongo da datuok etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazio publikoei (adibidez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila), eta horien mendeko edo horiekin lotutako erakundeek lagatzeko.

Halaber, datuak Sustatzaileari jakinaraziko zaizkio, jabetza higitzen esleipenak formalizatze eta salerosketak kudeatzeko.

Administrazio tramiteek irauten duten bitartean gordeko dira datuak, tratamenduaren ondoriozko lege erantzukizunak iraungitzen diren arte.

Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze eta horien tratamendua mugatu edo horren aurka egiteko. Horretarako, eskaera bat egin dezake Lezoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan; gainera, informazio gehiago lor dezake www.lezo.eus helbideko gardentasun atarian, eta Datuen Babeserako Agentziaren laguntza ere eska dezake.

La solicitud para participar en el sorteo en el Registro Municipal no supone la adjudicación de una vivienda a la persona solicitante, sino su participación en el sorteo. Dentro del procedimiento de sorteo y adjudicación, las personas solicitantes deberán presentar toda la documentación que les sea requerida para acreditar el cumplimiento de los requisitos exigidos para la adjudicación de la vivienda. En todo caso, toda la documentación indicada deberá presentarse antes de la firma del contrato privado de compraventa.

Artículo 7. Listas provisionales.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, mediante resolución de alcaldía se publicará la lista provisional para que las personas que hayan solicitado participar en el sorteo acrediten que su solicitud está formalmente incluida en la lista. Las listas estarán expuestas durante 5 días naturales en los tabloneros de anuncios del Ayuntamiento de Lezo y en la página web del Ayuntamiento (www.lezo.eus).

En este plazo de cinco días, las personas excluidas podrán presentar reclamaciones si consideran que no procede dicha exclusión. Dicha reclamación deberá presentarse por escrito en el Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Lezo o a través de la sede electrónica (www.lezo.eus) con la documentación justificativa que considere oportuna para exponer los motivos alegados por cada uno de ellos.

Artículo 8. Listas definitivas.

Una vez resueltas las reclamaciones formuladas, se publicarán en los tabloneros de anuncios y en la página web del Ayuntamiento las listas definitivas de participación en el sorteo.

Las listas definitivas contendrán los siguientes datos:

- Número del Documento Nacional de Identidad (DNI) de la persona que lidera la solicitud.
- Cupo en el que participa.
- Número con el que participa en el sorteo.

Las personas que hayan solicitado participar en el sorteo figurarán en la lista, sin que con ello se entienda que reúnen en ningún caso las condiciones y requisitos exigidos. En concreto, el cumplimiento de los requisitos legales se verificará con carácter previo a la adjudicación definitiva de las viviendas.

Artículo 9. Protección de datos.

De conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de protección de datos, el Ayuntamiento de Lezo será el responsable del tratamiento de los datos de carácter personal en relación con el Registro Municipal de Solicitantes de Vivienda de Protección Oficial.

Estos datos personales se destinarán a la gestión de viviendas protegidas, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 7/1985, de Bases de Régimen Local y la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda de Euskadi.

Estos datos podrán cederse a las administraciones públicas competentes en materia de vivienda (por ejemplo, el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco) y a las entidades vinculadas o dependientes de las mismas.

Asimismo, los datos serán comunicados al Promotor para la formalización de las adjudicaciones de propiedad inmobiliaria y para la gestión de las transacciones.

Los datos se conservarán mientras duren los trámites administrativos y hasta tanto se extingan las responsabilidades legales derivadas del tratamiento.

El interesado tiene derecho de acceso, rectificación, supresión y limitación u oposición a su tratamiento. Para ello, podrá realizar una solicitud en el Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Lezo, pudiendo además obtener más información en el portal de transparencia de la dirección www.lezo.eus y solicitar la colaboración de la Agencia de Protección de Datos.

III. SUSTATZAILEAK BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO JARRAITUKO DUEN PROZEDURA

10. artikulua. *Publizitatearen, gardentasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak.*

Kontua da aipatutako etxebizitzak eta horiei lotutako elementuen esleipen prozedura arautzea; prozeduran, batetik, guztiz errespetatuko da aukera berdintasuna, indarrean dagoen legediak jarritako baldintza guztiak bete eta esleipenean parte hartzeko eskaera egin duten eta onartu zaien bizikidetzak unitate guztien artean; eta, bestetik, bermatuta egongo da publizitatearen, gardentasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen direla.

11. artikulua. *Esleipendunak eta etxebizitzak hautatzeko zozketa.*

Parte-hartzaileen behin betiko zerrenda Lezoko Udalaren eta Sustatzailearen webgune aipatueta argitaratuko da. Eskaera bakoitzari ausazko zenbaki bat esleituko zaio, eta zenbaki hori erabiliko da sustapeneko etxebizitzak zozketa bidez esleitzeko.

Behar bezala jakinarazitako egun eta formatuan, zozketa publiko bat egingo da («zozketa»), xede horrekin izendatutako notarioaren aurrean. Zozketa horretan, etxebizitza bat eta hari lotutako elementuak (garajea eta trastelekua) lortu dituzten pertsonak aterako dira, helburu horrekin egin den etxebizitza eskatzaileen behin betiko zerrendako kideen artean (hemendik aurrera, «eskatzaileak»).

12. artikulua. *Zozketa.*

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduan jarritako modua oinarri edo erreferentzia bezala hartuta garatuko da prozedura: beraz, zozketa egin aurretik, zenbaki bat esleituko zaio, ausaz, esleipen prozesuan parte hartuko duen pertsona edo bizikidetzak unitate bakoitzari.

Horrela, etxebizitzak 3. artikuluan ezarritako kupoetan banatuko dira.

Kupoetan bereizi ondoren, 16 etxebizitzak kode alfanumeriko bitartez eta altuera handienetik (pisurik altuena) baxueneraino (pisurik baxuena) sailkatuko dira; eta hori, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 34.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. (Hala, hurrenkera honakoa litzateke: 4-A, 4-B, 4-C, 4-D, 3-A, 3-B, ..., 1-C eta 1-D).

Beraz, kupoen lehentasun irizpideari jarraituz, guraso bakarrek familientzako etxebizitzak 4-A eta 4-B izango dira; eta 4-C eta 4-D gazteentzako etxebizitzak. Bestalde, egokitutako etxebizitza 1-B izango da.

Zozketaren metodologia honakoa izango da: Notarioak zenbaki bat (1) aterako du etxebizitza egokituaren zozketarako. Lehen kupo horren zozketa egin ondoren, guraso bakarrek familien kupoaren 2 zenbaki aterako dira, eta, ondoren, gazteen kupoaren 2 zenbaki. Azkenean 11 zenbaki aterako ditu, esleitu beharreko kupo orokorreko etxebizitza bakoitza zozketatzeko.

Etxebizitza egokitua inori esleitzen ez bazaio, etxebizitza hori egokitu gabeko etxebizitzak eskatzaileei esleitu ahal izango zaie, Eusko Jauralaritzaren Etxebizitza Ordezkaritzak mugikortasun mugatutako pertsonen aldeko erreserba ezeztatzen duenean.

Kupo berezietarako erreserbatutako etxebizitzak esleitzen ez badira, kupo orokorrean sartuko dira.

Azkenik, Lezon errolatuak ez daudenez, bigarren itxaron zerrenda egiteko zozketa orokor bat egingo da (2 kupo bakarrik, etxebizitza egokitua eta orokorra).

13. artikulua. *Itxarote-zerrenda.*

Kupoetako bakoitzeko zenbaki bat gehiago aterako da, kupo guztien itxaron zerrendak egin ahal izateko. Ateratako zenbakiak aurrera, itxaron zerrenda hasiko da kontatzen.

III. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN DE VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL POR PARTE DEL PROMOTOR

Artículo 10. *Principios de publicidad, transparencia, libre concurrencia y no discriminación.*

Se trata de regular el procedimiento de adjudicación de las citadas viviendas y sus elementos vinculados, en el que, por un lado, se respetará plenamente la igualdad de oportunidades entre todas las unidades convivenciales que, cumpliendo todos los requisitos establecidos por la legislación vigente, hayan solicitado y aceptado participar en la adjudicación; y, por otro, se garantiza el cumplimiento de los principios de publicidad, transparencia, libre concurrencia y no discriminación.

Artículo 11. *Sorteo para la selección de adjudicatarios y viviendas.*

La relación definitiva de participantes se publicará en las citadas páginas web del Ayuntamiento de Lezo y del Promotor. A cada solicitud se le asignará un número aleatorio que servirá para adjudicar las viviendas de la promoción por sorteo.

En el día y formato debidamente comunicado se realizará un sorteo público («sorteo») ante el notario designado al efecto. En dicho sorteo saldrán las personas que han obtenido una vivienda y sus elementos vinculados (garaje y trastero) de entre los integrantes de la relación definitiva de solicitantes de vivienda con este fin (en adelante, «demandantes»).

Artículo 12. *Sorteo.*

El procedimiento se desarrollará tomando como base o referencia la forma establecida en la Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por lo que, con carácter previo al sorteo, se asignará al azar un número a cada persona o unidad convivencial participante en el proceso de adjudicación.

Así, las viviendas se dividirán en los cupos establecidos en el artículo 3.

Una vez categorizadas, las 16 viviendas se clasificarán mediante código alfanumérico y de mayor (piso más alto) a menor altura (piso más bajo), de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 34.3 de la Orden de 15 de octubre de 2012. (De esta forma, el orden sería el siguiente: 4-A, 4-B, 4-C, 4-D, 3-A, 3-B, ..., 1-C y 1-D).

Por tanto, siguiendo el criterio de prioridad de los cupos, las viviendas reservadas para las familias monoparentales serán de 4-A y 4-B; y las reservadas para jóvenes de 4-C y 4-D. Por otro lado, la vivienda adaptada será la 1-B.

La metodología del sorteo será la siguiente, el Notario procederá a la extracción de un (1) número para el sorteo de la vivienda adaptada. Una vez realizado el sorteo de este primer cupo extraerá 2 números del cupo de las familias monoparentales, y después otros 2 del cupo de jóvenes. Terminará extrayendo 11 números, a fin de sortear cada una de las viviendas a adjudicar del cupo general.

En caso que la vivienda adaptada no se le adjudicase a nadie, esta vivienda podrá ser adjudicada a demandantes de viviendas no adaptadas una vez que la Delegación de Vivienda del Gobierno Vasco cancele la reserva a favor de personas con movilidad reducida.

Si no se adjudicasen las viviendas reservadas para los cupos especiales, estas pasarán a formar parte del cupo general.

Finalmente, para los no residentes en Lezo se realizará directamente un sorteo general (solo 2 cupos, vivienda adaptada y general) para confeccionar una segunda lista de espera.

Artículo 13. *Lista de espera.*

Se sacarán un número más por cada uno de los cupos a fin de poder confeccionar las listas de espera de todos los cupos. A partir del número extraído comenzará a contar la lista de espera.

Horrez gain, beste bi zenbaki aterako dira Lezon erroldatuak ez daudenen zerrendak osatzeko.

14. artikulua. Jakinarazpena.

Behin zozketa burutzean, Lezoko Udalak esleipendun suertatu diren pertsoneri eta bizikidetzaren unitateen behin betiko zerrenda argitaratu du, eta 3 egun balioduneko epea egongo da errekurtsioa jartzeko.

Esleitutako esleipen-hartzaileek zozketa bidez aurkeztutako dokumentazioa bidaliko dio Lezoko Udalak erakunde sustatzaileari.

Sustatzaileak esleipena formalizatzeko aurkeztu behar dituzten dokumentuak jakinarazi beharko dizkie pertsona eta bizikidetzaren unitate esleipendunei, salerosketa-kontratuak sinatu. Kontratu hori, dagozkion administrazio-baimenak lortu ondoren formalizatu beharko da.

Komunikazio hori egiteko, hartzaileak jakinarazpena jaso duela berresteko aukera ematen duen edozein bide erabiliko da.

Eskatutako agiriak 5 egun naturaleko epean aurkeztu ez badira, esleitutako etxebizitzari uko egiten zaiola ulertuko da ondorio guztietarako.

Uko eginez gero, Sustatzaileak ahalmena izango du, etxebizitza itxarote zerrendako hurrengo pertsonari edo bizikidetzaren unitateari esleitzeko, Lezoko Udalarik horren berri emanez.

15. artikulua. Salerosketa kontratuak formalizatzea.

Entitate sustatzaileak salerosketa-kontratuak egingo ditu, eta une horretan esleipendunak prezioaren % 20 eta dagokion BEZa ordaindu beharko ditu, eta ordainagiria aurkeztu.

Esleipenduna salerosketa kontratuak sinatzera agertzen ez bada justifikatutako arrazoirik gabe esleitutako etxebizitzari uko egin diola ulertuko da, ondorio guztietarako. Kasu horretan, Sustatzaileak aukera izango du, legez, etxebizitza itxarote zerrendako hurrengo pertsonari edo bizikidetzaren unitateari esleitzeko.

16. artikulua. Salerosketa kontratuak ikus-onestea.

Salerosketa kontratu pribatuak sinatu ondoren, Sustatzaileak Etxebizitzaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko ditu, ikus-onetsi ditzan. Horrekin batera, pertsona edo bizikidetzaren unitate esleipendunek Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten dokumentuak ere aurkeztu beharko dira, eta/edo, hala badagokio, itxarote zerrenda agortu dela frogatzen dutenak.

17. artikulua. Salerosketaren eskriturak egitea.

Etxebizitzaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak salerosketa kontratuak ikus-onetsi ondoren, Sustatzaileak pertsona eta bizikidetzaren unitate esleipendunei modu argian jakinaraziko die, gutxienez hamar egun natural lehenago, salerosketa kontratuaren eskritura publikoa zein egun eta ordutan emango den, xede horretarako izendatuko den Euskadiko Elkargo Txiki Prestuko notarioaren aurrean.

18. artikulua. Uko egitea.

Sustatzaileak Altzateko Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko etxebizitzaren esleipen prozeduran egon diren berriazko eta isileko uko egite guztien berri eman beharko dio Etxebizitzaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari eta baita Lezoko Udalarik.

Bizikidetzaren unitatearen etxebizitza beharrekina bat datorren etxebizitza esleitu eta horri uko egiteak 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

19. artikulua. Lehentasunez erostea eta atzera eskuratzea.

Sustapenaren xede diren etxebizitzek etxebizitza babestuen kalifikazio iraunkorra izango dute. Horren ondorioz, eskualdake-

Adicionalmente, se sacarán dos números más para confeccionar las listas de espera de los no residentes en Lezo.

Artículo 14. Notificación.

Una vez celebrado el sorteo, el Ayuntamiento de Lezo publicará la relación definitiva de las personas adjudicatarias y de las unidades de convivencia, disponiendo de un plazo de 3 días hábiles para la interposición del recurso.

El Ayuntamiento de Lezo remitirá a la entidad promotora la documentación presentada por los adjudicatarios asignados mediante sorteo.

El promotor deberá comunicar a las personas y unidades convivenciales adjudicatarias los documentos que deben presentar para formalizar la adjudicación mediante la firma del contrato de compraventa. Dicho contrato deberá formalizarse una vez obtenidas las autorizaciones administrativas oportunas.

Esta comunicación se realizará por cualquier medio que permita confirmar la recepción de la notificación por el destinatario.

La falta de presentación de la documentación requerida en 5 días naturales se entenderá como renuncia a la vivienda asignada a todos los efectos.

En caso de renuncia, el Promotor podrá, adjudicar la vivienda a la siguiente persona o unidad convivencial en la lista de espera, notificando dicha circunstancia al Ayuntamiento de Lezo.

Artículo 15. Formalización de los contratos de compraventa.

La entidad promotora celebrará los oportunos contratos de compraventa, momento en el cual el adjudicatario deberá proceder al pago del 20 % del precio, más el IVA correspondiente y aportar el correspondiente justificante de pago.

La incomparecencia del adjudicatario a la firma del contrato de compraventa se entenderá, a todos los efectos, como renuncia a la vivienda adjudicada sin causa justificada. En este caso, el Promotor podrá, legalmente, adjudicar la vivienda a la siguiente persona o unidad convivencial en la lista de espera.

Artículo 16. Visar los contratos de compraventa.

Una vez firmados los contratos privados de compraventa, el Promotor deberá presentarlos para su visado en la Delegación Territorial de Vivienda de Gipuzkoa. Asimismo, se acompañarán los documentos que acrediten que las personas o unidades convivenciales adjudicatarias reúnen los requisitos exigidos para el acceso a las viviendas de protección oficial de régimen general y/o, en su caso, el agotamiento de la lista de espera.

Artículo 17. Escrituración de la compraventa.

Una vez visados los contratos de compraventa por la Delegación Territorial de Vivienda en Gipuzkoa, el Promotor comunicará a las personas y unidades convivenciales adjudicatarias, con una antelación mínima de diez días naturales, la fecha y hora del otorgamiento de la escritura pública de compraventa ante el notario del Ilustre Colegio del País Vasco designado al efecto.

Artículo 18. Renuncia.

El promotor deberá comunicar a la Delegación Territorial de Vivienda de Gipuzkoa, así como al Ayuntamiento de Lezo, todas las renunciaciones expresas y tácitas que se hayan producido en el procedimiento de adjudicación de Viviendas de Protección Oficial de Régimen General en Alzate.

La adjudicación y renuncia de una vivienda adecuada a las necesidades de vivienda de la unidad convivencial tendrá los efectos previstos en el artículo 19 de la Orden de 15 de octubre de 2012.

Artículo 19. Tanteo y retracto.

Las viviendas objeto de la promoción tendrán la calificación permanente de viviendas protegidas. Consecuentemente, esta-

tarako gehienezko prezioa ez ezik, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak ere erabili ahal izango dira modu iraunkorrean, lehenengo eta behin Udalaren izenean, eta beti modu subsidiarioan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren alde.

Udalak beretzat gordetzen du prozesu honetan sortzen den itxarote-zerrenda orokorra erabiltzeko aukera, eskubide horiek gauzatu ahal izateko.

20. artikulua. Jurisdikzio eskuduna.

Oinarri hauetan jasotakoa interpretatzerakoan zalantzarik izanez gero, bi aldeek Lezoko Udalaren interpretazio-irizpideari jarraituko diote.

Oinarri hauetan jatorria duten gai edo auzi guztiak ebazteko eskumena duen jurisdikzioa administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da.

Oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke hilabeteko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan eta epeetan.

rán sujetas de forma permanente no sólo al precio máximo de transmisión, como al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto a favor, en primer lugar del Ayuntamiento, y en todo caso, subsidiariamente a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

El Ayuntamiento se reserva la opción de utilizar la lista de espera general que se cree de este proceso para poder ejercitar dichos derechos.

Artículo 20. Jurisdicción competente.

En caso de dudas en cuanto a la interpretación de lo recogido en las presentes bases, ambas partes atenderán al criterio interpretativo del Ayuntamiento de Lezo.

Para dilucidar todas aquellas cuestiones o contenciosos, cuyo origen se encuentre en estas Bases, la Jurisdicción competente será la Contencioso-Administrativo.

Contra estas bases se podrá interponer recurso de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente a su publicación en BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa o directamente ante la jurisdicción contencioso-administrativa en la forma y plazos previstos en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.